

KANALAK

Behin produktua egindakoan, helburua bezeroak bilatu eta saltzea izango da. Zapatila hauek, esan bezala, bezeroaren beharretara egokituko dira, eta beraz, garrantzitsua izango da erosi aurretik probatzea, tamaina egokikoak ote diren ikusteko. Hori dela eta, guk jarritako dendetan egongo dira salgai, eta bezeroek nahi dutenean hara joan ahal izango dute. Hala ere, bezeroetatik gertuago egon ahal izateko, hainbat ortopedia dendetan gure produktuaren eredu estandarra eskuragarri izango dute, eta horrela, bertako dendariak gure enpresaren berri emango lukete jendeak ezagutzeko.

Bestalde, webgune bat ere sortuko dugu, etxetik jaso dezaten zer-nolako aukerak dituzten, hauen inguruko informazioa, itxura, prezioa... Horretarako, ikusmen arazoak direla medio, bideo eta audio asko jarriko genituzke eskura, automatikoki hasten direnak. Gure sakelakoaren zenbakia eta posta elektronikoa ere bertan aurkitu ahal izango dituzte, gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero. Hala ere, ezingo da produktua Internet bidez erosi, beharrezkoa ikusten baitugu erosi aurretik probatzea eta ziurtatzea bezeroarentzat egokiak ote diren.

Horrez gain, jakinda gure bezeroek mugimendu eta ikusmen arazoak izango dituztela, nahi izanez gero, hauengana hurbil gaitzke, beraiek gure dendetara etorri beharrean, gu beraien etxeetara joanez. Horrela, guk neurriak hartu eta oinetako aproposak egin diezazkiekegu.